



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

Servicios de la
Comarca de Pamplona s.a.
Iruñerriko
Zerbitzuak e.a.

2017ko URTEKO KUDEAKETA PLANA



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

Servicios de la
Comarca de Pamplona s.a.
Iruñerriko
Zerbitzuak e.a.

2017KO URTEKO KUDEAKETA PLANA

IMren Batzar Nagusiak onetsia 2016ko urriaren 27an



AURKIBIDEA

1. SARRERA..... **¡Error! Marcador no definido.**
2. 2017-2030 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN ERREFERENTZIA NAGUSIAK 4
3. 2017KO UKP-KO PROIEKTUEN ZERRENDA..... 6
4. 2017-2030 ALDIRAKO PE-AREN ETA 2017KO UKP-AREN ARTEKO ERLAZIOA;**¡Error! Marcador no definido.**
5. PROIEKTUEN DESKRIBAPENA..... **¡Error! Marcador no definido.**



1. SARRERA

Dokumentu honetan aurkezten dugun 2017ko Urteko Kudeaketa Plana 2017-2030 aldirako Plan Estrategiko berria kokatzen den lehena da, gobernu organoek onartzeko proposatutakoa, 2017rako aurrekontuetan jasotako baliabide aurreikuspenarekin batera.

2017-2030 aldirako Plan Estrategikoa egiteko prozesua 50 lagunek baino gehiagok parte hartzean oinarritu da, eta pertsona horiek, diziplina anitzetako taldeetan antolatuta, beren lana bi fasetan egin dute:

1. Erakundearen indarguneen eta hobekuntza arloen barne eta kanpo analisi sakona egin dute.
2. Erronka estrategikoak proposatu dituzte, eta haien hedatzea, jarduketan eta helburuen bidez.

Plan Estrategikoak (PE) IM eta SCPSArako epe luzerako, 2030erako, ikuspuntua eta muga taxutzen du, eta Urteko Kudeaketa Planak (UKP) proiektuen eta helburuen epe laburrerako zehaztapena dakar, urte baterako epean, ikuspuntu edo muga estrategiko horrekiko koherentzian.

Zehazki, 2017ko Urteko Kudeaketa Plan honen helburuak hauek dira:

1. Proiektu giltzarriak zehaztu eta erabakitzea, 2017-2030 aldirako Plan Estrategikoaren ardatz eta erronka estrategiko desberdinen arabera.
2. Erakundeak bere gain hartzen dituen kudeaketa konpromisoei buruko informazio zehatza eta gardena ematea, bai proiektuei bai eta aurreikusitako emaitzei dagokienez, aginte taulako adierazleen bidez.
3. Kudeaketaren jarraipena eta ebaluazioa erraztea maila desberdinetan, gobernu organoetatik eta zuzendaritzatik sailataraino eta proiektu taldeetaraino.
4. Informazio hori herritarrei helaraztea, Gardentasun Atariaren bidez.

Urteko Kudeaketa Plana, era berean, kudeaketaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko oinarria da. Erakundearen barnean aldian behin egiten diren berrikuspenez gain, formalki sei hilean behingo berrikuspen bat ezarri da, haren bidez gobernu organoei proiektu bakoitzaren bilakaeraren eta lortutako emaitzen berri emate aldera.

Halaber, urtero, 2017-2030 aldirako IM eta SCPSAren Plan Estrategikoko planteamenduen berrikuspena eta doitzea egingo da, Urteko Kudeaketa Plan bakoitzaren garapenaren eta hartan izandako lorpen partzialen arabera.

Azken batean, asmoa da Urteko Kudeaketa Planak eta dagozkion jarraipen txostenek erakundearen kudeaketaren aurrerapenaren ikuspegi global bat ematea, 2017-2030 aldirako IM eta SCPSAren Plan Estrategikoan adierazitako eta hartutako konpromisoekin bat eginda.



2. 2017-2030 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN ERREFERENTZIA NAGUSIAK

MISIOA

Iruñerriko Mankomunitatean bizi-kalitatea hobetzean laguntzea, uraren, garraioaren, hondakinen eta Ibai Parkearen zerbitzuak kudeatuta.

2030ERA KO IKUSPEGIA

IM-SCPSA ERREFERENTZIAZKO ERAKUNDE GISA, ERAGINKORTASUN, IRAUNKORTASUN ETA BERRIKUNTZAN.

BALIOAK

Gardentasuna eta hurbiltasuna

Interes taldeen premiekiko interesa agertzen dugu eta informazio osoa, zehatza eta ulergarria ematen dugu, erakundeak bere misioa betetzean gauzatzen dituen prozesuen, erabakien eta emaitzen gainean.

Profesionaltasuna eta konpromisoa

Ahalik eta zorrotasun tekniko handienarekin lan egiten dugu, gutako bakoitzak bere onena emanda.

Aurrerapena, malgutasuna eta bizkortasuna

Gutaz espero dena ezagutu eta ikertzen dugu, aldaketara egokituta, eta planteatutako erronketara epean egokiak diren konponbideak eskaintzen ditugu.

Koordinazioa eta talde lana

Norbanakoon ahaleginen batura baino gehiago gara, taldearen sendotasunean eta lanean elkarlanean aritzean sinesten dugu.

Sormena

Egiteko moduak zalantzan jartzen ditugu, eta aukera berritzaileak, eraginkorrak eta askiesgarriak bilatzen ditugu.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK

- **Lehen ardatz estrategikoa: Erakunde esparrua (EE)**

Iruñean eta Iruñerrian zerbitzuak emateko eredu erkidetuak argi utzi du eraginkorra dela konponbide teknikoak eta ingurumenekoak ematean, duen ibilbideari dagokionez, eskura ditugun datu eta adierazleetan jasota gelditu den moduan. Kalitate handia eskaini da zerbitzuak ematean eta gure esku dauden baliabideen erabilera iraunkorra egin dugu.



- **Bigarren ardatz estrategikoa: Herritarrekiko eta ingurunearekiko harremanak (HH)**

Iruñerriko Mankomunitatea eragin sozial zabaleko arloetan murgilduta dago, ezinbestekoak diren zerbitzuak emanez, izaera teknologiko nabarmenarekin eta herritar guztiarekin harreman zuzen eta egunerokoan. Horrenbestez, elkarlanerako espiritua, kanpora irekitzea eta gardentasuna oso bereziki zaindu behar dituen faktoreak dira.

- **Hirugarren ardatz estrategikoa: Zerbitzu iraunkorrak herritarrentzat (ZIU)**

Iruñerriko Mankomunitatearen osaketa eta garapena zuzenean lotuta egon da ingurumeneko arazo larriak konpontzeko premiarekin, besteak beste, urez hornitzea, kantitate nahikoan eta kalitate onean, hondakin urak sanotzea, hondakinak bildu eta tratatzea, eta eskualdeko hiri garraioaren zerbitzua ematea. Horrekin nabarmen hobetu da Iruñerriko ingurumena eta bertako biztanleen bizi-kalitatea.

- **Laugarren ardatz estrategikoa: Bultzada teknologikoa herritarren alde (BT)**

Teknologia oso azkar ari da aurrera egiten eta eraldaketa digitalak eragin handia du jarduera esparru askotan, baita ematen ditugun zerbitzuetan ere, bai hautemandako kalitateari eta eraginkortasunari dagokionez, bai eta kostuari dagokionez ere. Hartara, bilakaera teknologiko hau herritarren alde aplikatu behar da.

- **Bosgarren ardatz estrategikoa: Pertsona antolatuen (PA)**

Erakundeko langileak benetako abiadura palanka dira, motibazioa pizten duen ingurune batean eta ahalik eta gogobetetasun handienarekin, haien lanak ahalik eta kalitate handiena ekar diezaien ematen ditugun zerbitzuei.

Antolaketarako formatuek arinagoak izan beharko dute, ez hain hierarkikoak, eta lantaldeen bidez pertsonen parte-hartzean eta ekarpenetan oinarrituta egon beharko dute. Kudeaketa sistemak aurreratua izan beharko du, eta jarduera eta proiektuen eta, era berean, emaitzen ikuspegi globala, integratua eta sistematikoa erraztu beharko du.

- **Seigarren ardatz estrategikoa: Baliabide ekonomikoak (BE)**

Eskumenak gauzatzean gaitasun osoa duen erakunde gisa taxututa dago IM, eta helburua du kalitateko zerbitzuak eta autosufizientzia ekonomikoa lortzea, erabiltzaileentzat eta, oro har, komunitatearentzat onargarria den kostu batean.

Ardatz estrategiko hauetako bakoitza **ERRONKA ESTRATEGIKO** desberdinetan hedatzen da, Urteko Kudeaketa Planeko proiektu zehatzak hartzen dituztenetan, laugarren atalean jasota dagoen moduan.



3. 2017KO UKP-KO PROIEKTUEN ZERRENDA

1.	Plan Zuzendaria. Pertsonak eta antolaketa
2.	Kudeaketa eredu korporatiboa
3.	Gizarte Erantzukizun Korporatiboa
4.	Txoke Plana. Hondakinak murriztea eta jatorrian bereiztea
5.	Hondakinak biltzeko plana
6.	Hondakinak tratatzeko plana
7.	Iruñerriko Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana (IHMIP)
8.	Garraioaren berritze teknologikoa
9.	Ekonomia plana
10.	SCPSAren azpiegiturak gauzatzea
11.	Egiturak kudeatzeko sistema
12.	Enpresa kudeatzeko sistema (ERP)
13.	Administrazio elektronikoa
14.	Enpresa-aktiboen kudeaketa
15.	Klima aldaketa eta estrategia energetikoa
16.	Berrikuntza plana
17.	Egoitza berria



4. 2017-2030 ALDIRAKO PE-AREN ETA 2017KO UKP-AREN ARTEKO ERLAZIOA

2017-2030 ALDIRAKO IM ETA SCPSA-REN PLAN ESTRATEGIKOAK		URTEKO KUDEAKETA PLANAK. 2017																	
		UKP 1	UKP 2	UKP 3	UKP 4	UKP 5	UKP 6	UKP 7	UKP 8	UKP 9	UKP 10	UKP 11	UKP 12	UKP 13	UKP 14	UKP 15	UKP 16	UKP 17	
ERRONKA ESTRATEGIKOAK		Plan Zuzendaria, Pertsonak eta antolaketa	Kudeaketa eredu korporati-boa	Gizarte Erantzukizun Korporati-boa	Txoko Plana, Hondakinak murritzea eta jatorrian bereiztea	Hondakinak biltzeko plana	Hondakinak tratatzeko plana	IHMIP	Garraioren berritze teknologikoa	Ekonomia plana	SCPSAren azpiegiturak gauzatea, 2017	Egiturak kudeatzeko sistema	Enpresa kudeatzeko sistema (ERP)	Administra-zio elektroni-koa	Enpresa-aktiboen kudeaketa	Klima aldaketa eta estrategia energetikoa	Berrikuntza Plana	Egoitza berria	
HERRITARREKIKO HARREMANAK	1. HH	INTERES TALDEEKIKO HARREMANAK INTEGRATZEA ETA SENDOTZEA: GIZARTEA, ERAKUNDEAK, UNIBERTSITATEAK ETA IBERKETA ZENTROAK, PROFESIONALEN ELKARTEAK...																	
	2. HH	GARDENTASUNEAN SAKONTZEA, HERRITARREKIKO HARREMANEN ALDAKETARAKO, GARAPENERAKO ETA HOBEKUNTZARAKO FAKTORE GISA.																	
	3. HH	HERRITARREN INPLIKAZIOA BULTZATZEA, PARTE HARTZEKO PROZESU ERAGINKORRAK ANTOLATUTA.																	
	4. HH	IRAUNKORTASUNAREN ETA GIZARTE ERANTZUKIZUN KORPORATIBOAREN ALDEKO APUSTUAN OINARRITUTAKO IM ETA SCPSA-REN IRUDIA SUSTATZEA.																	
ZERBITZU IRAUNKORRAK	URAREN ZIKLO INTEGRALA ETA IBAI PARKEA	1. ZHU	ZERBITZUA EMAN AHAL IZATEKO BEHARREZKOAK DIREN UZL-REN AZPIGITUAK AURREKUSI, GAUZATU ETA HAI EI EUSTEA, HAIEN BIZITZA ERABILGARRIA MAXIMIZATUTA.																
		2. ZHU	HORNIDURAREN DENBORA ERREALEKO KUDEAKETA, KONTAGAILUEN TELEIBAKURKETA SARTUTA.																
		3. ZHU	IBILGUETARA EGITEN DIREN TRATATU GABEKO UR KUTSATUEN ETA EURI UREN ISURKETAK MURRITZEA.																
		4. ZHU	HORNIDURAN ETA ARAZTEAN, UR TRATAMENDUEN BILAKERA.																
		5. ZHU	IBAI PARKEA, ZABALTZEA ETA INTEGRATZEA, ESKUALDEKO MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO ARDATZ MODUAN.																
HONDAKINAK	1. ZHH	HONDAKINAK MURRITZEA ETA JATORRIAN BEREIZTEA MAXIMIZATZEA.																	
	2. ZHH	HONDAKINEN BILKETA ERAGINKORRA EGITEA, HELBURUEN ARABERAKO ETA IRAUNKORRA,																	
	3. ZHH	HONDAKINEN TRATAMENDUA ETA BALORIZAZIOA, AZKEN ISURTZEAREN BOLUMENA MINIMIZATZEKO. HONDAKINEN AZPIGITUAK EDO INSTALAZIOAK GAUZATZEA.																	
GARRAIOA	1. ZHG	IM-K IRUÑERRIRAKO MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO EREDU BERRIA BULTZATZEA ETA BABESTEA.																	
	2. ZHG	KALITATEKO GARRAIO PUBLIKO IZATEA ETA AURRERATUA TEKNOLOGIEI DAGOKIENEZ.																	
	3. ZHG	TAXIAREN ARLOA, MODERNIZAZIOA, IRAUNKORTASUNA, ERREGULAZIOA ETA OPTIMIZAZIOA.																	
KLIMA	1. ZHK	MANKOMUNITATE NEUTROA, KARBONOARI DAGOKIENEZ, 2030EAN.																	



5. PROIEKTUEN DESKRIBAPENA

URTEKO KUDEAKETA PLANA, 1. ZK. PLAN ZUZENDARIA. PERTSONAK ETA ANTOLAKETA

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	<p>5. ARDATZA. PERTSONA ANTOLATUAK (PA)</p> <p>1. PA ERRONKA. Giza baliabideentzako lan esparru bat edukitzea, barnean hartuko duena aurrez ikus daitekeen antolaketa eta teknologia bilakaera, belaunaldi ordezkapena/plantilla berritzea, eta giza baliabideen eta antolaketaren politika guztiak.</p> <p>2. PA ERRONKA. Garapen profesionala laguntzea, barnean hartuta lidergoa gauzatzea.</p> <p>3. PA ERRONKA. Lan harremanen esparru bat edukitzea, erakundeko hitzarmen kolektiboan oinarritutakoa, enpresaren kulturarekin eta, plantillaren bidez, kudeaketa aurreratuarekin bat datorrena.</p>
XEDEA	Neurriari dagokionez, egokia, gaitua eta konprometitua dagoen plantilla bat edukitzea, 2017-2030 aldirako Plan Estrategikoaren erronkei erantzun ahal izateko.
2017KO HELBURUAK	<p>1. Pertsonak</p> <p>1.1. Plantillaren simulazio eredu bat edukitzea, kudeaketa erraztu eta erabakiak aurreratzeko bidea emango duena.</p> <p>1.2. Prestakuntza programa desberdinak planifikatzeko eta benetan garatzeko prozedura zehaztea.</p> <p>1.3. Lidergoko gaitasunak hobetzea.</p> <p>1.4. Prozesuak eta prozedurak hitzarmen kolektibo berrira egokitzea, langileei aldaketa nagusien berri emanda.</p> <p>1.5. Langileen gogobetetasuna aztertzeke 2016an egindako inkestaren emaitzak aztertzea, beharrezkoak diren jarduketak dagokien planean sartuta.</p> <p>1.6. Diagnostikotik eratorriko den euskarari buruzko Jarduketa Plana garatzea eta Euskara Batzordearen proposamenak.</p> <p>2. Antolaketa</p> <p>2.1. Arlo eta sail guztien egungo egitura aztertzea, etorkizunerako erreferentziazko antolaketa ezarrita, irizpide komunekin, eta ahalik eta sinplifikazio eta sinergia handiena erraztuta.</p> <p>2.2. UKP Kudeaketa Eredu Korporatiboa garatzearen arabera, egitura funtzioaniztunak sustatzea, jardueren kudeaketa koordinatua, azken bezeroaren ikuspegia eta pertsonen parte-hartzea errazten dutenak.</p>
ARDURADUNA	Teresa Azcona Calahorra
2017AN INPLIKATUTAKO ARLOAK/SAILAK	Giza Baliabideak, Antolaketa, Lan Arriskuen Prebentzioa, Zuzendaritza-Gerentzia.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2017/01 - 2018/12
AURREKONTUA	70.000 €



URTEKO KUDEAKETA PLANA, 2. ZK. KUDEAKETA EREDU KORPORATIBOA

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	5. ARDATZA. PERTSONA ANTOLATUAK (PA) 4. PA ERRONKA. Antolaketa malguagoa, arinagoa eta zeharkakoagoa lortzea, erronka estrategikoeikiko koherentea dena. 4. ARDATZA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA (BT) 2. BT ERRONKA. Barne kudeaketa teknologikoa. Zeharkako proiektu teknologikoak eta egituratzaileak kudeatzea epe ertainean.
XEDEA	Erakundearen funtzionamendua hobetzea, hauen bidez: <ul style="list-style-type: none">• Kudeaketa eredu erabilgarria.• Enpresaren zuzendaritza beharretara egokitua.• Informazio garrantzitsua eskuratzea eta erabakiak hartzea erraztuko duena.
2017KO HELBURUAK	1. Kudeaketa eredu estandarizaturia edukitzea. 2. Antolabidearen diagnostiko bat egitea aukeratutako sistemarekin. 3. Laguntza bulegoa diseinatzea, prozesuak eta proiektuak kudeatzeko. 4. Prozesuen sistematizazioa (I. fasea). 5. Business Intelligence (BI) adierazleen kudeaketa ezartzean aurrera egitea bi proiekturen bidez. Haietako bat Bezeroena izango da. 6. Barnean hartzea eta egon daitezkeen jarduketa desberdinak konektatzea, kudeaketa eredu korporatiboaren zati gisa, interfazeak eta egon litezkeen inkoherentziak kenduta.
ARDURADUNA	Manuel Iribarren Oscoz
2017AN INPLIKATUTAKO ARLOAK/SAILAK	Antolaketa, Informazio Sistemak, Zuzendaritza-Gerentzia.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2017/01 - 2019/12
AURREKONTUA	20.000 € 50.000 €, adierazleen kudeaketarako (Business Intelligence sistema). Informazio Sistemen sailak egin du haien aurrekontua.
OHARRAK	



URTEKO KUDEAKETA PLANA, 3. ZK. GIZARTE ERANTZUKIZUN KORPORATIBOA

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	2. ARDATZA. HERRITARREKIKO ETA INGURUNEAREKIKO HARREMANAK (HH) 4. HH ERRONKA. Iraunkortasunaren eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren aldeko apustuan oinarritutako IM eta SCPSAren irudia sustatzea.
XEDEA	Erakundearen Gizarte Erantzukizunaren politika eta jardunbideak sistematizatzea, dauden jarduketa guztiak barnean hartuta, haiei zabalkundea ematea sustatuta eta etorkizunerako beste ekimen batzuk programatuta.
2017KO HELBURUAK	1. GEK diagnostikoa egitea, metodologia estandarrekin, GEKeko plan baterako oinarri moduan. 2. GEKarekin lotuta dauden egungo jardunbide guztiak deskribatu, zentralizatu eta barnean hartzea. 3. Zabalkundea ematea eta ezaugaraztea sustatzea.
ARDURADUNA	Arturo Ruiz de Azagra Tamara
2017AN INPLIKATUTAKO ARLOAK/SAILAK	Kanpo Harremanak, Antolaketa, Ingurumena.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2017/01 - 2017/06
AURREKONTUA	Ez da aplikagarria
OHARRAK	



URTEKO KUDEAKETA PLANA, 4. ZK. TXOKE PLANA. HONDAKINAK MURRIZTEA ETA JATORRIAN BEREIZTEA

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. HONDAKINAK (ZIHH) 1. ZIHH ERRONKA. Hondakinak murriztea eta jatorrian bereiztea maximizatzea. 3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. KLIMA ALDAKETA. (ZIHK) 1. ZIHK ERRONKA. Mankomunitate neutroa, karbonoari dagokionez, 2030ean.
XEDEA	Bereizte indizeak eta hondakin desegokiak minimizatzearenak handitzea frakzioetako bakoitzean, arreta berezia jarrita frakzio organikoari dagokionean. Hondakinak sortzeari eustea edo hori gutxitzea. Biohondakinen bilteta bereizia, %70ekoa, 2027an.
2017KO HELBURUAK	1. Txoke plan bat gauzatzea, hondakinak murriztu eta bereiztera bideratutako neurriak dituen. 2. 2016an bildutako gai organikoaren kantitatea %50 handitzea. 3. Biohondakinak: %40 biltzea lortzea. 4. Gauzatzea eta lortutako emaitzak neurtu eta ebaluatzea, bai emaitza globalak eta bai proiektu pilotuenak ere. 5. Etxeko eta auzoko konpostajearen ekintza plana.
ARDURADUNA	Carmen Lainez Larragueta
2017AN INPLIKATUTAKO ARLOAK/SAILAK	Hondakinak, Kanpo Harremanak, Ingurumena.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2017
AURREKONTUA	400.000 € + 200.000 € (hirugarren garbigune finkoa)
OHARRAK	Proba pilotuen emaitzen arabera, jardunbide onenak Iruñerri osora hedatzea.



4. ZENBAKIKO URTEKO KUDEAKETA PLANAREN I. ERANSKINA: HONDAKINAK MURRIZTEKO ETA BEREIZTEKO NEURRIAK

EGUNGO EGOERAREN BERRI IZATEA

1. “Zergatik ez da bereizten?” lanaren oinarriaren gaineko azterlana.
2. Alderaketa, parte-hartze adierazleei buruko SCPSAren azterlanekin.
3. Alderaketa, CRANAren azterlanarekin (gai organikoen bilketa ezarri aurretikoa).

GAI ORGANIKOEN EDUKIONTZIAK

4. Gai organikoetarako edukiontzietara sarbide edo erabilera “pertsonalizatua” edukitzearen proba pilotua. Esperientzia pilotu bat egitea Iruñerriko barruti/auzo/herri batean: egungo giltzaren ordezkari identifikazio sistema jartzea (NFC txartela, kodea edo beste batzuk).
5. Aurrekoarekin paraleloan, proba pilotua egingo da gai organikoetarako edukiontzia irekitzeko pedala duten edukiontziekin (aurrekoarekin bateragarria bada baino ez).

Baztertu egiten da sarbide edo erabilera kontrola kentzea. “Sortzeagatik ordaintzea” ideian aurrera egiteko dira aldaketak eta gaika biltzean edo bereiztean bakarka betetzearen arabera hobaria emateko/zigortzeko.

HERRITARREI GAI ORGANIKOETARAKO EDUKIONTZIA ERABILTZEA ERRAZTEA

6. Herritarrei arreta egiten zaien SCPSAren zentroetan giltzak edukitzea.
7. Bilketan laguntzaile direnak (Caprabo/Eroski) baliatzea giltzak banatzeko.
8. Frakzio bakoitzerako “edukiontzia/paperontziak” kokatzea SCPSAren zentro guztietan.

ALDAKETAK BILKETAN

9. Erripagaña eta Lezkairuko zentral pneumatikoeekin bildutako frakzioen analisia eta, egokia bada, aldaketa. Gai organikoak, gainerakoak eta ontziak, gainerakoen, ontzien eta paperaren aurrean.
10. Guneak aztertzea eta, egokia bada, ezartzea (edo “gune txiki” garbiak edo mini garbiguneak) toki bat eskaintzen duten udalerrietan.
11. Hirugarren garbigunea kokatzea, Iruñerriaren ipar-ekialdean.

INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO OROKORRA

12. Komunikazio kanpaina “generalista” Hondakinaren Partzuergoarekin, gai organikoak eta gainerako frakzioak bereiztearen gainean. “Ez bereizteak” ingurumenean dituen eraginak → klima aldaketa.
13. Bosgarren edukiontzian biltzea indartzeko kanpaina. Gai organikoen bilketako laugarren fasea ezartzen amaitu eta gero, indartzeko kanpaina 2016an eta analisia 2017an.
14. Informazioa erakundearen barnean indartzea, SCPSAren langileen artean.
15. Gai organikoak bereizteko jarduerak sustatzea heziketa programaren barnean.
16. Saneamendu kanpaina dela-eta, bisita pertsonalizatuetan (egoitzetan, hartzaindegietan...) informazio sinergiak sortzea.

BERARIAZKO KANPAINAK

17. Kanpaina sortzaile handientzat, hondakinak sortzen dituzten gune adierazgarrienen oinarriaren gainean: ostalaritza (gutxi gorabehera 2.500), ostalaritzan iturriko ura erabiltzeko ekimenekin batera (Idéate).
18. Berariazko kanpaina jantokietan eta janari dendetan (frutak eta barazkiak).
19. Tamaina handikoen kanpainen informazioa.
20. Garbiguneen informazioa.
21. Berariazko kanpaina sukaldeak kokatzen dituztenentzat: hondakinaren frakzioak kontuan hartzea diseinatzean.
22. Kanpaina segmentatuak:
 - a. Etorriak
 - b. Gazteak



URTEKO KUDEAKETA PLANA, 5. ZK. HONDAKINAK BILTZEKO PLANA

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. HONDAKINAK (ZIHH) 2. ZIHH ERRONKA. Hondakinen bilketa eraginkorra egitea, helburuen araberakoa eta iraunkorra.
XEDEA	2027rako Nafarroako Hondakin Planean ezarritako helburuak betetzea.
2017KO HELBURUAK	1. Garbigune izan daitezkeen premiak zehaztea, gauzatzeko egutegia eta proiektuen hasiera. 2. Bilketa pneumatikoko frakzioen analisisa. 3. Bilketa pneumatikoko zentralak martxan jartzea. 4. Bilketa kontratua. 5. Esperientzia pilotuak hiri bilketan (edukiontziak aldatzea eta abar).
ARDURADUNA	Carmen Lainez Larragueta
2017AN INPLIKATUTAKO ARLOAK/SAILAK	Hondakinak.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2017
AURREKONTUA	125.000 €, gehi bilketa pneumatikoko zentralak martxan jartzea.
OHARRAK	4. zenbakiko Urteko Kudeaketa Planarekin zuzenean lotuta dago (Txoke plana: hondakinak murriztea eta jatorrian bereiztea).



URTEKO KUDEAKETA PLANA, 6. ZK. HONDAKINAK TRATATZEKO PLANA

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. HONDAKINAK (ZIH) 3. ZIHH ERRONKA. Hondakinen tratamendua eta balorizazioa, azken isurtzearen bolumena minimizatzeko. Hondakinen azpiegiturak edo instalazioak gauzatea.
XEDEA	Legeria eta Nafarroako Hondakin Plana betetzea. %50 berreskuratzea 2020. urtean. Hondakin biodegradagarrien isurtze portzentajea 1481/2001 Errege Dekretuaren arabera: 2016an botatako hondakin biodegradagarriak %35era murriztea 1995ean botatakoekiko, Estatu mailan. Bildutako frakzio desberdinak tratatu eta eliminatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak lortzea: <ul style="list-style-type: none">• Gainerakoen edo errefusaren frakzioa• Gai organikoak• Ontziak• Zaborteia
2017KO HELBURUAK	Hondakinen %40 berreskuratzea 2017an. Gainerakoen edo errefusaren frakzioa. Aukera teknologikoak. Kokaleku aukeren analisia. Hautatutako aukera martxan jartzea. Gai organikoak. Kokaleku aukeren analisia. Eraikitze proiektua idatzi eta enkantean hartzeko eskaintzea. Hirigintzako eta ingurumeneko izapideak bideratzea.
ARDURADUNA	Carmen Lainez Larragueta
2017AN INPLIKATUTAKO ARLOAK/SAILAK	Hondakinak, Berrikuntza eta Proiektu Estrategikoak, Proiektuak eta Lanak, Ingurumena.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2017/01 - 2017/12
AURREKONTUA	1.750.000 € (inbertsioak). Hainbat urtetarako proiektuak.
OHARRAK	Hainbat urtetarako proiektua.



URTEKO KUDEAKETA PLANA, 7. ZK. IRUÑERRIRAKO HIRI MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO PLANA (IHMIP)

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. GARRAIOA (ZIHG) 1. ZIHG ERRONKA. IMk Iruñerriko mugikortasun iraunkorreko eredu berria bultzatzea eta babestea. 2. ARDATZA. HERRITARREKIKO ETA INGURUNEAREKIKO HARREMANAK (HH) 1. HH ERRONKA. Herritarren inplikazioa bultzatzea, parte hartzeko prozesu eraginkorrak antolatuta.
XEDEA	Administrazioen arteko hitzarmena izenpetu duten administrazioek IHMIPa onartzea, hartan jasotako helburuak beteta eta helburu horretarako onartzen den lanerako plana.
2017KO HELBURUAK	1. Analisia eta diagnostikoa, eta IHMIParen proposamenak egitea. 2. Parte-hartze publikoko prozesuari hasiera ematea. 3. Proiektuak kudeatzeko sistematika aplikatzea. 4. Sare nagusiari buruzko bideragarritasun azterlan bat egitea.
ARDURADUNA	Jesús Velasco Pérez
2017AN INPLIKATUTAKO ARLOAK/SAILAK	Garraioa, Kanpo Harremanak, IM.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2016/06 - 2019/02 2017/04 - 2017/09, sare nagusiari buruzko bideragarritasun azterlana egiteko.
AURREKONTUA	160.000 € (HMIP) + 130.000 € (bideragarritasun azterlana)
OHARRAK	



URTEKO KUDEAKETA PLANA, 8. ZK. GARRAIOAREN BERRITZE TEKNOLOGIKOA

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	<p>3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. GARRAIOA (ZIHG)</p> <p>2. ZIHG ERRONKA. Kalitateko garraio publikoa izatea eta aurreratua teknologiei dagokienez.</p> <p>3. ZIHG ERRONKA. Taxiaren arloa. Modernizazioa, iraunkortasuna, erregulazioa eta optimizazioa.</p> <p>4. ARDATZA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA (BT)</p> <p>3. BT ERRONKA. Teknologian oinarritutako bezeroak eta zerbitzuak. Zerbitzu adimendunen estrategia diseinatu eta ezartzea, herritarrei begirakoak eta Nafarroako "Smart Cities" ekimenarekin lerrotatuak.</p>
XEDEA	Garraio zerbitzua teknologiaren aldetik berritzea, zerbitzua (EHGa eta taxia) hobeki emateko sistema eta bitarteko aurreratuak sartuta progresiboki.
2017KO HELBURUAK	<p>EHG</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ordainbide berria zehaztea eta Ustiapenerako eta Informaziorako Laguntza Sistema (SAEI), eta bai EHGko beste sistema teknologiko ontziratatu batzuk, etorkizuneko garraio txartel bakarrekin bateragarriak izango direnak. 2. Garraio txartel bakarraren datuen egitura zehaztea eta hari lotutako prozedurak, bai eta EHGko ordainbide ontziratatu berria ere, hautatutako teknologiarekin bateragarria dena. 3. EHGa ordaintzeko eta kargatzeko era berriak ezartzea, 2016ko azterlanean identifikatutakoak, epe laburrerako konponbide gisa. Komunikazio kanpaina integrala egitea, bai EHGa ordaintzeko eta kargatzeko era berriei buruzkoa, bai eta egungo kargatze guneen informazioari buruzkoa ere. 4. EHGko autobusetan wifi zerbitzua ezartzeko konponbide tekniko eta administratiboari buruzko azterlana egitea, eta, Mankomunitateko gobernu organoek hala erabakitzen badute, ezartzeko lan egitea. 5. Proba pilotu bat egitea, EHGko gidarien segurtasuna hobetzeko, neurri teknologikoak ezarri eta autobusetan manparak era esperimentalean kokatzearen bidez, gaueko zerbitzuetan hasita, eta proba pilotua baloratzea. 6. EHGko zerbitzuari buruzko informazioa denbora errealean emateko 6 taula berri kokatzea garraio publikoko geralekuetan. <p>Taxia</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Etorkizuneko garraio txartel bakarrean sartu beharreko prozedurak zehaztea, taxi zerbitzuko ordainketa barnean sartzeko. Horretarako, berrikuntzako proiektu pilotu bat egingo da, eskaeraren arabera taxi ordainketa kudeatzeko, taxi zerbitzua batera emateko lurralde eremuko udalerriek kudeatuta, eta administrazioen arteko hitzarmena sinatuta aurretik.
ARDURADUNA	Jesús Velasco Pérez
2017AN INPLIKATUTAKO ARLOAK/SAILAK	Garraioa, Informazio Sistemak.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2017 - 2020
AURREKONTUA	<p>50.000 €:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Berritze teknologikoa zehazteko laguntzarako. • Kargatzeko era berrien kosturako, aurrekontuan sartua, kargatzeko sarearen zerbitzuagatiko komisioak. • Taxian ordainketa kudeatzeko proiektu piloturako. <p>40.800 €, batera finantzatzeko garraioko txartel bakarraren datuen egitura zehazteko laguntza teknikoa, Nafarroako Gobernuarekin egingo den hitzarmen baten esparruan.</p>
OHARRAK	



URTEKO KUDEAKETA PLANA, 9. ZK. EKONOMIA PLANA

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	6. ARDATZA. BALIABIDE EKONOMIKOAK (BE) 1. BE ERRONKA. IM eta SCPSAren ekonomia-finantza plana, oreka eta independentzia ekonomikoa islatuko duena, tarifen/finantzaketaren esparru egonkor baten bidez.
XEDEA	Emandako zerbitzuen kostua ezagutzea eta kostu horiek tarifetan duten eragina ebaluatzea, kostu horiek ondorea ekartzeko erabiltzaileei. Plan Estrategikoan planteatutako proiektuen arabera zerbitzuak emateko IM eta SCPSAK ekin beharreko inbertsioen eta ustiatze kostuen eta diru sarreren kostuaren analisisa egitea, epe labur, ertain eta luzera.
2017KO HELBURUAK	1. Inbertsioen analisi ekonomikoa eta ustiatze kostuetan duten inplikazioarena. Lau bloke planteatzen dira, eta haietan kontuan hartu behar da diru-laguntzak jasotzeko aukera: <ul style="list-style-type: none">• Egun dauden azpiegiturak berritu eta/edo eguneratzea. Beren zenbatekoarengatik, Uraren Ziklo Integralari lotutakoak: hornidura eta saneamendu sareak, ura edateko on bihurtzeko plantak eta araztegiak.• Azpiegitura berriak: IMren egoitza, frakzio desberdinak tratatzeko plantak (hondakin organikoak, errefusa, ontziak) eta zaborteia, autobusetarako garaje berriak, hiri garraioko sare nagusia, ibilguetara ez isurtzeko plana eta UZiko hoditeriak eta beste elementu batzuk handitzeko inbertsioak, Ibai Parkea.• Ibilgailuen flotak berritzea: ibilgailuak, autobusak eta bilketako kamioiak.• Inbertsio teknologikoak: ERP, bezeroekiko harremana, elementuen sensorizazioa (teleirakurketa, edukiontziak...). 2. Aurrekoetan oinarrituta, eragina aztertzea IM-SCPSAko ustiatze kostu eta diru sarrera handiago edo txikiagoetan. 3. Eragina zehaztea zerbitzu desberdinetako tarifetan, edo egungo tarifa egiturari eutsita edo hura aldatuta.
ARDURADUNA	Javier Boneta Beorlegui
2017AN INPLIKATUTAKO ARLOAK/SAILAK	Finantzak, Ikuskatzailatza.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2017 - 2018
AURREKONTUA	Ez da aplikagarria.
OHARRAK	2018an, tarifa egituraren alternatiben analisisa egingo da.



URTEKO KUDEAKETA PLANA, 10. ZK. SCPSA-REN AZPIEGITURAK GAUZATZEA, 2017

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	<p>3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. URAREN ZIKLO INTEGRALA (ZIHU)</p> <p>1. ZIHU ERRONKA. Zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoak diren UZlren azpiegiturak aurreikusi, gauzatu eta haiei eustea, haien bizitza erabilgarria maximizatuta.</p> <p>5. ZIHU ERRONKA. Ibai Parkea. Zabaltzea eta integratzea, eskualdeko mugikortasun iraunkorrerako ardatz moduan.</p> <p>3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. HONDAKINAK (ZIH)</p> <p>3. ZIH ERRONKA. Hondakinen tratamendua eta balorizazioa, azken isurtzearen bolumena minimizatzeko. Hondakinen azpiegiturak edo instalazioak gauzatzea.</p>
XEDEA	<p>SCPSAren 2017rako aurrekontuetan zehaztutako proiektuak eta obrak gauzatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Goi hornidura, IMren eremuan. • Goi hornidura, eremu mugakideetan. • Goi saneamendua. • Hornidurako eta saneamenduko tokiko sareak. • Bideak. • Hiri hondakinak, tratamendua. • Eraikinak eta beste batzuk.
2017KO HELBURUAK	<p>2017rako aurrekontuetan jasotakoa garatzea, lehentasunezkoak direla uste delako, bereziki kontuan hartuta proiektu eta lan hauek:</p> <p>Goi hornidura, IMren eremuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mazela egonkortzea Larrasoañan (3. fasea) • Ziritzako biltegia • Arreko biltegia • Iragazkiak berritzea Urtasungo EUTEn <p>Hornidura, eremu mugakideetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eugi hornitzea • Olabe, Olaitz eta Enderitz (Olaibar), eta Eusa (Ezkaibarte) hornitzea <p>Tokiko sareak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euri uren saneamendu sarea Iruñeko Miluze kalean <p>Arazketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zubiriko hustubidea eta HUA • Elo-Getze Ibargoitiko hustubidea eta HUA • Arazuri: lehen mailako lohien galbaheak ordeztzea (bulkatzea eta galbaheak) • Arazuri: arbastua kokatzea gainezkabide orokorrean <p>Hondakinak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gai organikoak tratatzeko planta • Gainerakoien edo errefusaren frakzioa tratatzeko plantaren aurretiazko azterlanak <p>Ibai Parkea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ibai Parkea konektatzea Landabenen • Arazuri-Ororbia zatia <p>Egoitza</p>
ARDURADUNA	Juan Ramón Ilarregui Tejada
2017AN INPLIKATUTAKO ARLOAK/SAILAK	Proiektuak eta Lanak, Hondakinak, Uraren Ziklo Integrala, Ingurumena.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2017/01 - 2017/12
AURREKONTUA	17,3 milioi €
OHARRAK	Hainbat urtetarako zenbait inbertsio.



URTEKO KUDEAKETA PLANA, 11. ZK. EGITURAK KUDEATZEKO SISTEMA

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. URAREN ZIKLO INTEGRALA (ZIHU) 1. ZIHU ERRONKA. Zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoak diren UZlren azpiegiturak aurreikusi, gauzatu eta haiei eustea, haien bizitza erabilgarria maximizatuta.
XEDEA	Egituren egoera kudeatzeko aukera emango duen sistema bat ezartzea, beren ezaugarri funtzionalei dagokienez, eta bai kontserbatze egoeraren ebaluazioa egiteko aukera emango duena ere. Emitza gisa, erabakiak hartzen laguntzeko tresna bat lortu nahi da, ikuskatze lehentasunei eta haien helmenari dagokienez eta kontserbatzean eta berritzean egin beharreko inbertsio eskakizunei dagokienez. Hauetarako bidea emango du: <ul style="list-style-type: none">• Aktiboak hobeki kontserbatzea.• Aurrea hartzea eta mantentze-lanen kostuak aurrezte.
2017KO HELBURUAK	1. Inbentarioa amaitzea, aktiboak kudeatzeko sistemarekin koherentzian. 2. Egiturak kudeatzeko sistema ezartzen hasteko beharrezkoak diren aplikazio informatikoak edukitzea. 3. Prestakuntza ematea UZlko langileei, egiturak ikuskatzearen eta ezarritako tresnak erabiltzearen gainean.
ARDURADUNA	Juan Ramón Ilarregui Tejada
2017AN INPLIKATUTAKO ARLOAK/SAILAK	Proiektuak eta Lanak, Sareen eta Instalazioen Mantentze Zentroa, Informazio Sistemak.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2016/01 - 2018/12
AURREKONTUA	60.000 €
OHARRAK	



URTEKO KUDEAKETA PLANA, 12. ZK. ENPRESA KUDEATZEKO SISTEMA (ERP)

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	4. ARDATZA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA (BT) 2. BT ERRONKA. Barne kudeaketa teknologikoa. Zeharkako proiektu teknologikoak eta egituratzaileak kudeatzea epe ertainean.
XEDEA	Enpresa kudeatzeko sistema bat edukitzea (ERP). Aukera emango du enpresako negozio arlo gehieneko prozesuak eta informazioa barneratzeko, hobeki funtzionatu ahal izateko.
2017KO HELBURUAK	Informazio sistemen egungo egoeraren diagnostikoa egitea, antolaketa mailan eta berritze teknologikoan ekin beharreko ekintzak identifikatzeko. Diagnostikoaren norainokoa: <ul style="list-style-type: none">• Negozioaren kudeaketa estandarra: finantzak, kontabilitatea, erosketak, biltegia, giza baliabideak, azpiegituren proiektuak, eta abar.• Kudeaketa komertziala: kontratatzea, kontagailuak, irakurketak, fakturazioa, kobrantzak, lan aginduak, bezeroekiko arreta.• Eta antolaketa eskatzen dizkien baldintza berriak. Prozesuaren azken mugaria 2017an: aurreko azterlanaren xede den kudeaketa sistema berritzeko proiektua enkantean hartzeko eskaintzea, lehentasunezko zat jotzen den norainokoarekin.
ARDURADUNA	Felipe Alonso Rodríguez.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2017: Aholkularitza 2018: Kontratatzea eta garapena (Lawson) 2019: Garapena (Lawson) 2020: Garapena (Lawson/Bezeroak) 2021: Garapena (Bezeroak)
2017AN INPLIKATUTAKO ARLOAK/SAILAK	Informazio Sistemak, Finantzak, IM.
AURREKONTUA 2017	100.000 €
OHARRAK	Denbora programaziotik goragoko norainokoa duen proiektua.



URTEKO KUDEAKETA PLANA, 13. ZK. ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	4. ARDATZA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA (BT) 3. BT ERRONKA. Teknologian oinarritutako bezeroak eta zerbitzuak. Zerbitzu adimendunen estrategia diseinatu eta ezartzea, herritarrei begirakoak eta Nafarroako "Smart Cities" ekimenarekin lerrokatuak.
XEDEA	Eraginkortasuna handitzea kudeaketan, erakundeak ematen dituen zerbitzuekin lotutako izapideetan herritarrei sarbide elektronikoa erraztuta, izapide horiek sinplifikatuta eta arinduta, administrazio elektronikoko prozesuak eta aplikazioak ezartzearen bidez, eta antolaketa herritarrekin lan egiteko modu horretara egokituta.
2017KO HELBURUAK	Egingo diren baldintzetan sartutako mugarren arabera gauzatzea proiektua: 1. Idazkaritzako modulua ezartzea, bi erakundeak, Iruñerriko Mankomunitatea eta Iruñerriko Zerbitzuak, S.A., zuzentzen dituzten gobernu organoen premiei erantzunda. 2. ALSIGM sistemari bilakaera ematea SARA sareko zerbitzuekin konektatzeko (datuak kontsultatzeko eta egiaztatzeako zerbitzuak) eta barneko beste informazio sistema batzuen zerbitzuekin (ERP, Prisma, eta abar). 3. Plataformari bilakaera ematea, osagaiak zaharkitzeari aurre egiteko eta paraleloki eusteko softwarearen gainerako osagaien bilakaerari, bai herritarrei bai bideratzaileei beren lanpostuan eragiten dietenei. 4. Antolabidearen barnean espediente elektronikoa ezartzea, tresna elektronikoa desberdinak zabaldu eta haien prestakuntza ematearekin batera (prozeduren modelizatzea, ziurtagiri elektronikoa, sinadura elektronikoa, jakinarazpen elektronikoa, izapidetze elektronikoa).
ARDURADUNA	Felipe Alonso Rodríguez
2017AN INPLIKATUTAKO ARLOAK/SAILAK	Informazio Sistemak, Bezeroak, IM.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2010 - 2020
AURREKONTUA	80.000 €
OHARRAK	



URTEKO KUDEAKETA PLANA, 14. ZK. ENPRESA-AKTIBOEN KUDEAKETA

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	<p>3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. URAREN ZIKLO INTEGRALA (SSCA)</p> <p>1. ZIHU ERRONKA. Zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoak diren UZlren azpiegiturak aurreikusi, gauzatu eta haiei eustea, haien bizitza erabilgarria maximizatuta.</p> <p>4. ARDATZA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA (BT)</p> <p>2. BT ERRONKA. Barne kudeaketa teknologikoa. Zeharkako proiektu teknologikoak eta egituratzaileak kudeatzea epe ertainean.</p>
XEDEA	<p>SCPSAren aktiboen errendimendua optimizatzea beren bizi zikloan, kontrol software bat ezarrita, hauek hobetze aldera:</p> <ul style="list-style-type: none">• Kudeaketa alderdiak.• Prebentzio eta zuzentze mantentzea.• Segurtasuneko eta ingurumeneko araudiak betetzea.
2017KO HELBURUAK	<ol style="list-style-type: none">1. Aktiboak kudeatzeko softwarea ezartzea sendotzea Agustindarren industrialdeko CMRIn, sareen kudeaketarako.2. Gongorako Hiri Hondakinak Tratatzeke Zentroan ezartzea.
ARDURADUNA	Felipe Alonso Rodríguez
2017AN INPLIKATUTAKO ARLOAK/SAILAK	Informazio Sistemak, Sareen eta Instalazioen Mantentze Zentroa, Hondakinak.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2013 - 2018
AURREKONTUA 2017	50.000 €
OHARRAK	Aurreikusita dago 2018an kudeaketa plan hau garatzea gainerako beharretarako: hobiak, Ibai Parkea, eraikinak.



URTEKO KUDEAKETA PLANA, 15. ZK. KLIMA ALDAKETA ETA ESTRATEGIA ENERGETIKOA

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT: KLIMA ALDAKETA. (ZIHK) 1. ZIHK ERRONKA. Mankomunitate neutroa, karbonoari dagokionez, 2030ean.
XEDEA	Mankomunitatea neutroa izatea, karbonoari dagokionez, 2030ean.
2017KO HELBURUAK	IM eta SCPSAren klima aldaketa eta energia estrategia onartzea. Hauek hartuko ditu barnean: 1. 2016ko Karbono Azterna ebaluatu eta zertifikatzea. 2. SCPSAren flota elektrikorako plana: plana onartu eta lehen ibilgailuak eskuratzea. 3. Eraginkortasun energetikoko planak idatzi eta onartzea. 4. Saneamendu eta/edo hornidura sarearen ahalmen termikoa ebaluatzea: azterlana idaztea.
ARDURADUNA	Álvaro Miranda Simavilla
2017AN INPLIKATUTAKO ARLOAK/SAILAK	Berrikuntza eta Proiektu Estrategikoak, Garraioa, UZI, Hondakinak, Zerbitzu Orokorrak, Ingurumena.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2014 - 2030
AURREKONTUA	33.000 €
OHARRAK	



URTEKO KUDEAKETA PLANA, 16. ZK. BERRIKUNTZA PLANA

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	4. ARDATZA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA (BT) 1. BT ERRONKA. IM eta SCPSAren plan teknologikoa edukitzea.
XEDEA	IM eta SCPSAn Berrikuntzako prozedura sistematiko bat edukitzea, gure zerbitzuak herritarrei ematean hobetzeko ekimenak aurkezteko balioko duena, gure barne funtzionamendua hobetuko duena eta beste batzuekin lankidetzan aritzeko balioko duena interes komuneko berrikuntza arloetan.
2017KO HELBURUAK	1. Berrikuntza prozesuaren garapen jarraitua SCPSAn: <ul style="list-style-type: none">• Idéate: programa indartzea eta onartutako iradokizunak ezartzeko prozesua berriro formulatzea.• SCPSAko berrikuntza proiektuak: berrikuntzako bost proiektu gauzatzea, hautatzeko barne prozesu batetik abiatuta.• Berrikuntza proiektuak beste batzuekin: bi proiektu garatzea. Haietako bat izango da Arazuriko biogasa araztea ibilgailuetan erabiltzeko.• Smart Cities: Nafarroako Gobernuarekin eta tokiko beste erakunde batzuekin Nafarroako Smart Cities plana idaztean eta haren lehen jarduketetan parte hartzea. 2. Barne berrikuntzaren arloko inkesta egitea.
ARDURADUNA	Álvaro Miranda Simavilla.
2017AN INPLIKATUTAKO ARLOAK/SAILAK	Berrikuntza eta Proiektu Estrategikoak.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2017/01 - 2017/12
AURREKONTUA	70.000 €
OHARRAK	



URTEKO KUDEAKETA PLANA, 17. ZK. IM ETA SCPSA-REN EGOITZA BERRIA

ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	5. ARDATZA. PERTSONA ANTOLATUAK (PA) 5. PA ERRONKA. IM eta SCPSAren egoitza berria
XEDEA	IM eta SCPSAren egoitza bateratua hartzeko eraikin bat lortzea. Barnean hartuko ditu herritarrei arreta emateko tokiak, administrazioa eta erakunde egoitza.
2017KO HELBURUAK	Egoitza korporatibo berriaren proiektuan aurrera jarraitzeko dagokion akordioaren mendeakoa: 1. Beharren programa osatzea. 2. Baldintzen plegua idaztea, proiektua idazteko eta enkantean hartzeko eskaintzeko. 3. Paraleloki, beharrezkoak diren hirigintzako kudeaketak osatzea.
ARDURADUNA	Álvaro Martínez Reguera.
DEPARTAMENTOS/AREAS IMPLICADOS 2017	Zuzendaritza-Gerentzia, Antolaketa, Berrikuntza eta Proiektu Estrategikoak, Proiektuak eta Obrak.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2017 - 2021
AURREKONTUA¹	2017: 200.000. Beharren programa, plegua eta proiektua idaztea. 2018: 300.000. Proiektua idaztea. 2019: 5.350.000. Gauzatzea. 2020: 5.350.000. Gauzatzea. 2021: Gauzatzen amaitzea eta lekualdatzea.
OHARRAK	Hainbat urtetarako proiektua.

¹ Behin betiko kopuruak eraikitzeko proiektua idatzi ondotik zehaztuko dira.